

noaia

**Xabi Iribarren heriotzak
atsekabea eragin du**

**Sagardo berriak
txinparta bizia du**



**Txirikorda,
gazteak eta adinekoak
uztartuko dituen bizigune berritzailea**

noaua euskararen aterpe

Bazkideok egiten dugu posible


Astekaria, noaua.eus, Kulturaldia, Santo Tomas azoka, Inauteri Jaia, Udajolas...

**BAZKIDE EGIN
ZAITEZ!**

eta opari eder
hau eskuratu!



Bazkidegiz: urtean 40 euro.
Informazio gehiago: 943 36 03 21
elkartea@noaua.eus



**AZKEN 2
PLAZAK!**

TAILANDIA



NOAUA
BIDAIK

943 373 613

**BIDAIK
TALDEAN**

IRTEERA MAIATZEAN

LASARTE ORIATIK, NOAUA GIDATUA

info@noaua.eus

noaua.eus

TELMO ESNALEN FILM BAT



noaua

DANTZA FILMA

Urtarrilak 27, igandea
SUTEGI AUDITORIOAN
19:00

Sarrerak: aurrez salgai 6 eurotan
NOAUA! Kultur Elkarteetan eta Lizardin.
Bazkideek 4 eurotan NOAUA'n bertan.



Albiste irudituan

Artzeren omenez

Urtarrilaren 15ean Joxan Artze omendu zuten Foru Aldundian. Familiak haren artxiboa dohain-tzan eman dio Foru Aldundiari, eta esker ona adierazteko ere baliatu zuten omenaldi-ekitaldia.

Andoni Salamero poetak Artzeren azken liburuetako dozena bat olerki errezitatu zituen, Mixel Ducau eta Caroline Philips musikarien laguntzarekin. Artze bera Txoria txori errezitatzen ageri zeneko irudiekin osatutako ikus-entzuzko batekin ere gogoratu zuten poeta usurbildarra. Horrez gain, Markel Olano diputatu nagusiak, Denis Itxaso Kultura diputatuak, Pio Perez Mikel Laboa Kate-drako arduradunak eta Artzeren sorkuntza lanaz tesia egin zuen Belen Oronozek hartu zuten hitza. Guztiek goraiatu zuten poetak euskal kulturaren alde egin zuen lana.



Urtarrilaren 15eko omenaldian Markel Olano diputatu nagusiak hartu zuen parte.

Aldundiaren ordezkariak Artzeren obra zaindu eta zabalduko duela azaldu zuten. "Haren artxibo pertsonalari esker,

hurbiletik ezagutu ditzakegu haren jarduera intelektual bizia ez ezik, haren lan metodo berezia ere", jakinarazi zuten.

Laburrean

Datozen ikastaroak KzGunean

- Urtarrilak 28-29, 9:00-11:00. "Zure argazki guztiak antolatu edozein gailutik".
- Urtarrilak 30, 9:00-11:00. "Musika aplikazioak zure gailuetarako".

Informazio gehiago: Kale Nagusia 37 / 943 023 684 / tutor.usurbil@kzgunea.net

'Dantza' pelikula ikusteko azken sarrerak salgai

Urtarrilaren 27an igandearekin Sutegin, arratsaldeko 19:00etan. Sarrerak aurrez eskura daitezke NOAUA!n eta Lizardi dendan 6 eurotan. NOAUA!ko bazkideek (bazkide bakoitzeko sarrera bat) soilik 4 euro. Baina hauek NOAUA!n bakarrik daude salgai.

Urtarrileko azken ostiraleko elkarretaratzea

Euskal presoek eskubideen aldarria plazaratzeko hitzordu berria ate joka dugu. Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak deituta, elkarretaratzea egingo da urtarrilaren 25ean ostirala iluntzeko 20:00etan hasita, Mikel Laboa plazan.

noaUA

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 // elkartea@noaUA.eus // www.noaUA.eus
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Idoia Torregarai.
Aldizkari koordinatorak: Imanol Ubeda.
Idazkaria: Aizpea Aizpurua.
Publizitatea: Beatriz Alda, publizitatea@noaUA.eus
Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua, erredakzioa@noaUA.eus: Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.
Banaketa: Iñaki Irazusta, Jon Galbete.
Laguntzaileak: Lontxo Zubiria, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbietia, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaiz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.
Tirada: 2.800 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal Herrira!



Luis Aranalde

Ibarran bi iloba badauzkat oso zinemazaleak. Beren etxean afaldu nuen Gabon gauean eta esan zidaten: “dantza pelikula ikustera joan behar duzu, osaba, oso polita da”. Ez zuten arrazoi faltarik: duela egun batzuk ikusi nuen benetako “rara avis” hau eta hura gozamina begientzat eta belarrientzat! Estasiatuta egon nintzen denbora guztian. Instate batean pasa zitzaidan ordu eta erdiko emanaldia. Guztiz ederra iruditu zitzaidan: eszenifikazioa, koreografia, musika, kantak...

Herri guztietan eta betidanik izan da dantza emozioak espresatzeko bidea, bizitzako gertakizun garrantzitsuenak ospatzeko modua: jaiotzak, heriotza, ezkontza, gerra garaipenak, ongietorriak, agurrak... Dantzaren jatorria kokatzea denbora eta leku konkretu batean ezinezkoa da. Badirudi gizonaren barne muinetan dagoen joera dela sentimenduak, bizipenak eta

naturarekiko lotura adieraztea dantzaren bitartez. Horren adierazgarri dela esango nuke Dantza pelikula. Hain zuen ere, pelikula hasten da, koreografia bikain batekin nekazariak aitzurrean ari direlarik. Hori da lan xume bat arte bihurtzea. Hori da imajazioa eta abilezia. Ni aitzurrean aritua naiz Gazteluko gure soroetan artajorran, baratzean (aginagatar batzuek barre ironiko bat egingo dute agian hau irakurtzean, baina jakin dezatela Bach, Chopin edo Aita Donostia jotzen baino lehenago ikasi nuela aitzurrean)... eta inoiz ez nuen pentsatuko aitzurren metalezko buruak eta egurrezko kirtenak kolpatuz sor zitezkeenik filmean entzuten diren perkusio erritmoak eta musikak.

Telmo Esnalek zuzentzen du; lehen ere ba zuen esperientzia zinema munduan, hain zuzen ere “Aupa Etxebeste” arrakastatsua zuzendu zuen duela hamairu urte. Alderdi artistikoa Alkizako Koldobika Jauregiren esku utzi zuen Esnalek. Peliku-

lan islatzen den unibertso estetiko eta bisuala berari zor zaio. Juan Antonio Urbeltz ikertzai-leak berriz filmean agertzen diren koreografiak koordinatzen ditu. Leitzan egiten duten dantzan bera agertzen da doctore asko jantzita, emanaldia presidituz eta erritmoa jarritz.

Pelikularen egileek azpimarratu dutenez, bizitza zikloari buruzko istorio bat kontatzen dute. Gai unibertsalak sinbologia berezi batez jantziak ageri dira. Tradizioari, lurrari, haren jendeari, mitoei eta ohiturei egindako kanta poetiko bat da. Duela zazpi urte abiatu zen proiektua eta 2018ko urtarri-lean bukatu zen. Erakunde askoren babesia izan du. Doinuak osatu dituzte Marian Arregi zenak eta Mikel Urbeltzek. Pieza bakoitzak behar zuen tonu zinematografikoa lortzeko arduraduna Pascal Gaigne izan da. “Handia” pelikularen musikarengatik Goya saria irabazi zuen.

“Urteak neramatzan pentsatzen dantzaren munduare-

kin zerbait egin behar genuela”, adierazi zuen Esnalek. Lanean hasi bezain pronto konturatu ziren dantzaren atzean dagoen unibertso sinbolikoa oso aberatsa dela. Arazoetako bat izan zen zein dantza motak aukeratu behar zituzten pelikularako, izan ere beren dantza erreperitorioa oso zabala da eta filmean dantza gutxi batzuk agertzen dira.

Dantzaren filmaketa leku askotan egin dute: Nafarroan, Gipuzkoan, Bizkaian, Lapurdin, Zaragozan... Eta dantzari dagokionez berriz, Euskal Herriko dantza taldeetako berrehundik gora dantzari hartu dute parte filmean.

Greenpeace erakundeak Lurra saria eman zion dantza pelikulari Donostiako festibalean “oso ondo islatzen dituelako herri dantzez baliatuz, gizakia eta naturaren arteko harreman estuak”. Esnal, Jauregi eta Urbeltz, artearen mago hauek, a zer erregalia egin ziguten Gabonetan!

Aroa Etxeburua Ugartemendia | Garazi Lizaso Manterola | Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | **Luis Aranalde** | Luken Arkarazo

Atxilotua, Aritzetatik ordaindu gabe joan izanagatik

Ertzaintzak 37 urteko gizon bat atxilotu zuen igande goizaldean A-8 autopistan, Orioko irteeran, antza, Aritzeta zerbitzu guneko gasolindegie-

tako batean ibilgailurako erre-gaia hartzen 44 euro xahutu eta ordaindu gabe alde egin izanagatik. Ertzaintzak zabalduetako oharren arabera,

“autoaren gidariak jarrera oldarkorra izan du identifikatzen saiatu diren agenteekin, eta menderatu egin behar izan dute. Behin atxilotu dutenean,

polizia-egoitzara eraman dute iruzur delitua eta agintaritzaren agenteen aurkako atentatua eta desobedientzia larria leporatuta”.

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak
649 43 54 75
943 36 72 64
IT-ak egiten dira
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

Josue
Igeltseritza
606 37 21 05
Atallu nol. 78 USURBIL

Uraitz, s.l.
Igeltseritza Orokorra
693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

Iñaki Iturgintza
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRITAGARRIAK
Info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com
600 024 825

Martxoaren 8an, greba feminista

Iaz bezala, bigarren, greba eguna deitu du Euskal Herriko Mugimendu Feministak datorren martxoaren 8rako. “2019ko Martxoaren 8an emakumeok, transok eta bollerok lan guztiak utziko ditugu eta kaleak hartuko ditugu berriro ere”, iragarri dute.

Asanbladetan antolatzen hasiak direla adierazi dute, bai herri, eskualde eta maila nazionalen. Kolektibo ezberdinekin bilduta, 25 aldarrikapen baino gehiago zehaztu eta oinarri politiko amankomun batzuk jasotzen dituen dossier bat idatzi dute. “Grebaren jendarte osoa eta instituzioak interpelatuko ditugu” aipatu dossier horrekin.

Kapitalismoari, patriarkatuari, heteroarauari, kolonialismoari eta kapazitismoari planto egiteko greba izango da Martxoaren 8koa, bizitza erdigunera ekartzeko eguna. “Bost ardatzetan antolatu dugu greba: pentsionista, ikasle, zaintza, enplegu eta kontsumo greba feminista izango da”.

Grebaren bidez eskaerok plazaratuko dituzte. “Bizitza sostengatzeko ardura kolektiboa eskatzen dugu. Horretarako,



Asanbladetan antolatzen hasiak direla adierazi dute, bai herri, eskualde eta maila nazionalen.

MUGIMENDU FEMINISTA

“Bost ardatzetan antolatu dugu greba: pentsionista, ikasle, zaintza, enplegu eta kontsumo greba feminista izango da”

rako, zaintzaren berrantolaketara soziala aldarrikatzen dugu, politika publikoen zeharkako ardatza izan dadila, pertsonen zaintza ez dadila zapalduon bizkarrean geratu. Finean, paktu sozial berri bat eskatzen dugu. Bide horretan, parekidesuna bermatzeko politikak eta berdintasun formalaren garapena ezinbestean uztartu

behar ditugu sakoneko eraldaketa prozesu batekin”.

Informazio gehiago:

grebafeminista.wordpress.com

Lehen atxikimenduak

Usurbilgo Ernaik bat egin du jada hitzorduarekin. Martxoaren 8an planto egiteko deia egin dute. “Heteropatriarkatu kapitalistari, neska* gazteok planto! Martxoaren 8an Greba Feminista Euskal Herrian. Pentsiodun, ikasle, zaintza, enplegu eta kontsumo grebarekin bat egiten dugu Ernaiko kideok. Adi deialdiei! Gora borroka feminista! Gora Euskal Herria feminista!”.

30. Lilatoirako izen ematea zabalik

Usurbilgo hamarnaka emakumeren parte hartzea erakarri izan duen (iaz 63 parte hartzaile) 30. Lilatoirako izen ematea zabaldu du jada, Atlético San Sebastian Elkarateak.

Aurten, martxoaren 10ean

Donostian ospatuko da ohi bezala, baina aurten martxoaren 10ean. Izen ematea online bidez egin beharko da otsailaren 26a edo dortsalak agortu baino lehen, www.lilaton.es atarian.



Izen ematea otsailaren 26an irekiko da edo dortsalak amaitu arte egongo da zabalik. Argazkian, duela bi urteko Lilatoian parte hartu zuten lasterkari batzuk.

Matrikulazio garaia ikastetxeetan

2019-20 ikasturterako matrikulatzeko garaia heldu da ikastetxeetan. Izen emateok bideratzeko urtarillaren 28tik otsailaren 8rako epea izango da, Udarregi Ikastolan, Aginagako eta Zubietako Eskoletan, baita HHI-EPAn ere. Udarregiri dagokionez, Ate Irekien Eguna antolatu du larunbaterako (urtarrilak 26), 10:30ean eraikin berriko jangelan.

Udarregi Ikastola:

943 36 12 16
Gernika ibilbidea
udarregi.eus

Aginagako Eskola:

Erriberako Kalea 7
943 372 044
012261aa@hezkuntza.net

Zubietako Eskola:

943 372 931.
Fax: 943 372 931.
012219aa@hezkuntza.net
zubietako@eskolatxikiak.org
(gurasoen helbidea).
www.zubietako.eskolatxikiak.org

HHI-EPA, Helduen Eskola:

943 366 608
info@epalarte.eus
epalarte.eus

Otsailaren 3an, haurrentzako zinea euskaraz

Otsailean bai, ohiko hitzorduan itzuliko da Usurbilgo Udalak Ziortza Gazte Elkaratearekin elkarlanean, negu parterako antolatua duen haurrei zuzendutako euskarazko film proiektioaren zikloa. Hurrengo saioa, otsailaren 3an 17:00etan Sutegin. Sarrerak egunean bertan jarriko dituzte salgai 3 eurotan. Filmaren izenburua egunotan zehaztekoan dira.

Arrate Elkarte, aldaketa eta erronkez beteriko urtean

Joxe Miguel Furundarena, Andres Bruño, eta Antton Pikabea orain. 1986an sortu zuten Arrate Aginagako jubilatuen elkartearen egungo lehendakaria, bere 14 bat urteko jarduneko azken txanpan dela elkarrizketatu du NOAUA!k, urte amaieran berriz ireki zuten Arrate tabernan bertan. Arrateko martxaz, eta noski, pentsioen gaiari buruz galdetu diogu.

NOAUA! Duela bi hilabete elkarrizketa hau taberna honetan ezin izango genuen egin. Albiste ezinhobea izango da elkartearentzat Arrate berriz irekita egotea?

Antton Pikabea: Albiste oso ona izan da. Hiruzpalau hilabete beldurtuak eta urduri egon gara, inor ez baitzen apuntatzen udaletxeak egin zuen deialdira. Aginaga erdiguneari hau kentzen badiozu, ez da ezer. Poza hartu genuen, Aroa Bengoetxeak eta Alaitz Kaminok hartuko zutela esan zigutenean. Gainera biak dira aginagarren alabak. Oso pozik gara. Bertan otorduak egiteko aukera badela ahoz aho zabalteko lanetan gabilta.

Bereziki, jubilatuen kolektiboak eskertuko du.

Aginaga herri sakabanatua da. Horregatik, Aginagako jubilatuen kopuru handiena Arratera etortzea zaila da. Batzuk mendialdean bizi dira, hemendik 3 kilometrora. Halere badirudi,



“14 urteren ostean, datorren martxoan agian beste lehendakari bat jarriko dugu Aginagako Arrate elkartearen”, Antton Pikabeak azaldu digunez.

ANTTON PIKABEA

“Arrateko lehendakari ni izan arren, aipatu nahi nuke Ixiar Izagirrek eta Agate Rekondok lan izugarria egiten dutela”

azken hilabete eta erdi honetan jendea animatzen ari dela etortzera, kafetxoak hartu eta baita otorduak egitera ere.

65 urtetik gorako bizilagun mordo du Aginagako.

Ezingo nizuke zehaztu baina kopuru handi bat bai. Jubilatuen elkartearen bazkideetara direnak ia 100 izango dira, 90etik gora. Jendea jubilatzen denean bazkideetzen da. Gero zaila da, horri erantzun bat ematea. Adibidez, irteerak direnean.

Irteerak aipatu dituzunez, zein da Arrate Elkartearen urteko dinamika?

Dozena erdi bat irteera egiten ditugu urtero, gehienbat Gipuzkoan barrena. Nafarroara joan izan gara baita, Errioxa aldera, Bilboko estropadetara... Gero memoria, eskulan eta pintura tailerrak ditugu. Emakumeak izaten dira gehienetan parte hartzen dutenak. Lan asko eta politikak egiten dituzte, San Praixkuetako erakusketan ikus dezakezuen moduan. Horretan ondo erantzuten dute adineko emakumeek. Aginagako jubilatuei esango nieke irteeretara eta ekintzetara animatzeko. 75-76 plazako autobusa alokatzen dugu eta 30-35 joaten gara. Autobusa ahal bada betetzea gus-tatuko litzauguke.

“Atzetik datorrenari zorte ona opa diot”

NOAUA! Martxoan izango duzue bazkideen urteko batzarra. 2018ko kontua itxi eta 2019rako begira jarriko zarete.

Antton Pikabea: Ekintzen programa bat egingo dugu, ze irteera egongo diren... Aurten batzordea berritzaia egokitu daiteke. 14 urteren ostean, datorren martxoan agian beste lehendakari bat jarriko dugu. Ezaguna da baina ezin dizut izenik eman. Atzetik datorrenari zorte ona opa diot. Arrateko lehendakaria ni izan arren, Ixiar Izagirrek eta Agate Rekondok lan izugarria egiten dutela nabarmendu nahi nuke.

Batzordeak zer lan ditu eskualdean?

Hemen bilera asko ez dira egin orain arte. Duela biz-pahiru urte arte. Duela biz-pahiru urtetik hona gauzak asko aldatzen doaz, bai jubilatuen pentsioak direla, puntu beltzen gaia dela... Lan gehiago eskatzen du horrek guztiak. Erakundeen gainean egon behar duzu. Jubilatua behar da Arrate Elkartearen sartzeko. Baina dinamika guztia eramango duen ni baino jende gazteagoa behar da.

Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

RPS: 28/17

20170
USURBIL



EROSKI/city

kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182

ARRANDEGIA
PELLO

ORDUTEGI BERRIA:
ASTELEHENETIK-LARUNBATERA

9:00-13:30

ASTEARTE-ASTEAZKEN-OSTEGUNA
17:00-19:30

PUNTAPAX 7, 943 54 37 94

“Puntu beltz asko dago”

NOAUA! Pil-pilean diren bi gai aipatu dituzu; pentsioak eta puntu beltzen gaia. Puntu beltzez jositako N-634 errepidea dugu. Traba nabaria, Aginaga bitan zatitzen duena.

Antton Pikabea: Traba oso handia da. Orain errepideko abiadura mugatua dago (orduko 50 kilometroko abiadura) eskerrak. Foru Aldundiarekin hori lortzea kosta zen. Halere jendea nahi duen bezala ibiltzen da. Beste puntu beltz asko dago; Galardi aldean errepidea zeharkatzeko. Saretak jarri zituzten arren, espaloitik errepideko zebra-bideetara jaisteko koskak daude toki batzuetan. Intxaurreta aldean ere arazo handia dago, kurba nahiko itxia dago eta oinezkoak pasatzeko arrisku handia da bertan... Aginagako erribera asfaltatzeko dago. Oso toki polita da ibiltzeko eta errepideko arriskua saihesteko aproposa.

Pentsioen gaiari dagokienean, urriaren 4an martxa egin zenuen, hileroko mobilizatzen hasiak zarete... Nazkatuta zaudete ezta?

Batzuk pentsio nahiko onak ditugu. Ni ez naiz kexatzen, baina 4-5 urteetan alboratuak egon gara. Politikariek adostutako Toledoko Ituna ere ez dute bete. Euskal Herrian dagoen egoera ekonomikoaren arabera, 1.080 euro tokatzen da gutxieneko pentsioa. Horretara iritsi beharko dugu, ez baikara iristen. Batipat pentsio baxuak dituztenek. Lotsagarria da. Alargunek edota kotizatu



Antton Pikabea “Herri Txiki” telebista saioan agertu zen aurreko igandean. Argazkia: EITB.

ANTTON PIKABEA

“Batzuk pentsio baxuak dituzte eta lotsagarria da. Alargunek edota kotizatu ez dutenek, nondik jan behar dute? Zerbait behar dute. Horretan lan handia dago. Ez da etsi behar, hori lortu arte”

ez dutenek, nondik jan behar dute? Zerbait behar dute. Horretan lan handia dago. Ez da etsi behar, hori lortu arte.

Gai honekiko nola sumatzen duzu inguruko jendea?

Jendea aspertuta dago jada. Hauteskundeak datozenean egingo dugu hau edo hura esaten dute, baina gero ahaztu egiten dira. Horrek ez du hala izan behar. Gizarte zerbitzuak lehenetsi behar dituzte. Beste gai batean sartzen izango da, baina erresidentziarena hor dago adibidez. 80. hamar-

kadan hasitako arazoa. Sei saiakera egin ziren. Handik aurrera ez dakit zenbat gehiago. Orain egingo dutela dirudi. Matia, Foru Aldundiaren eta Udalaren esku dago.

Pentsioena jubilatuen gai soila ez dela diozue sarritan. Denon interesekoa baizik.

Bai, atzetik datozenek zer izango dute? Ze jubilazio izango dituzte, zer prestazio, laguntza izango dituzte? Honetan sakondu beharra eta oso ondo pentsatu beharrekoa dela esango nuke. Bi seme ditut. Zaharrena lanean dago, ez soldata handiarekin. Bigarrena urtebete lanean, beste urte erdia langabezian. Orain langabezian dago. Beti ikasten eta lan finkorik ez, triste hori da. Lehendakariak jende prestatua behar duela dio. Ados, jendea prestatua behar dugu, baina prestatua dagoen jendeari gero erantzun egin behar zaio, lan bat eman behar zaio. Eta ahal bada lanpostu finkoa.

“Agintean daudenek ikusi behar dute zein den egoera”

NOAUA! Egungo errealitatea aldatu arte, kalean segiko duzue ezta?

Antton Pikabea: Hor segi beharra dago, gogor. Gauzak ez dira errazak izaten, badakit. Baina kontxo, agintean daudenek ere ikusi behar dute zein den egoera, eta gutxienez, irtenbide bat ematen saiatu.

Zuen belaunaldiak eskubide askoren alde borrokatu behar izan zuen. Eta orain, berri ere kalean zarete.

Berriz ere hor gabiltza. Urte batzuk txarrak izan genituen lanean ere eta borrokatuz egin dugu bizimodua. Baina berriz ere gazte jendeari hori datorkiola ikusten dut.

Pentsio duinen aldeko mobilizazioa

Badator urtarrileko azken osteguna, eta horrekin, pentsio duinak exijitzeko, herriko hiru jubilatutako elkarteek- Usurbilgo Gure Pakeak, Santue- nek Gure Elkarteak eta Aginagako Arratek- deitutako hileroko elkarretaratzea. Herri osoari luzaturikoa da, urtarrilaren 31rako 19:00etan Mikel Laboa plazan deitu duten elkarretaratzea.

Pentsiodunen elkarteek, astero mobilizatzen jarraituko dute urte honetan zehar. Maiatzaren 26ko hauteskunde bezperatan, mobilizazio erraldoiak iragarri dituzte hiriburuetan.

ARRANDEGIA
PELLO
ASTELEHENETIK-LARUNBATERA
9:00-13:30
PUNTA PAX 7, 943 54 37 94 USURBIL

ORDUTEGI ETA TELEFONO BERRIA!
ASTEARTE-ASTEAZKEN-OSTEGUN
17:00-19:30

Otar-Goxo
Elkargaiak
Zubiaurrenea, nº2
943 36 55 81
20170 Usurbil

www.noaua.eus
USURBILGO ATARIA

Konponbiderako eta elkarlanerako ekimen politikoa aurkeztuko du EHBilduk

Datozen asteetan hondakinen kudeaketarekin Gipuzkoan dugun gatazka, erakunde eta herritarren arteko elkarlanez eta gipuzkoarren erabakia errespetatuz konpontzeko norabidean kokatuko den ekimen politikoa aurkeztuko duela iragarri du, herrialde mailako EHBilduk.

Azpitarratzen dutenez, bada garaia behingoz “egoera tamalgarri honi irtenbidea emateko. Bada garaia denok gure akatsak eta ardurak onartu eta aurrera begiratzeko. Bada garaia herritarren eskaerei erantzuteko. Ekin diezaiozun bidea elkarrekin, eman diezaiozun aukera bat konponbideari eta Gipuzkoako erakundearen eta herritarren arteko elkarlanari”.

Ohar bidez, koalizioak egungo foru gobernuaren eta Jose Ignacio Asensio ingurumen diputatuaren “azken akusazioak salatu nahi ditu”. EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak EHBilduren errekurtsioa aztertzearen aurka agertu izanaren harira esan dutena argitu nahi dute. EHBildutik azpitarratzen dute, “Auzitegi Gorenak ez duela EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren erabakia berresten, baizik eta



EHBildu Gipuzkoako ordezkariak, GuraSOsek Hitzartu plana Diputazioan erregistratu zuen egunean. Argazkia: EHBildu.

EH BILDU

Hondakinen kudeaketaren inguruan “bada garaia denok gure akatsak eta ardurak onartu eta aurrera begiratzeko. Bada garaia herritarren eskaerei erantzuteko”, ohar bidez jakinarazi duenez

kasua aztertzeari uko egiten diola”.

Asensioek Espainiako Kontu Auzitegiak esandakoa ez duela onartzen dio EHBilduk. Kontu Auzitegiak arrazoia eman zien, 2011-15 legealdiko EHBilduren ordezkari politikoek 2013an erraustegiaren kontratua eteteko hartutako erabakiari dagokionean. “Erraustegia gelditu izanak inongo kalte ekonomikorik ez zuela ekarri, baizik eta kontratua eten ez balitz sortuko zirela gipuzkoarrentzat kalte ekonomikoa”, gogorarazi dute.

“Beste pauso juridiko bat ematea erabaki dugu”

Horregatik, EHBildutik diotenez, “EAEko Auzitegi Nagusiak kontratuaren etetearen inguruan esan dituen kontratuaren esleipenera aplikatzen baditugu, etetearekin saihestu ziren ondorio kaltegarriak are handiagoak lirateke”. Auzitegi Gorenak gai hau aztertu ez duenez, “beste pauso juridiko bat eman eta egintzak deuseztatze ekinbidearen bidea jorratzea erabaki dugu”.

Otsailaren 23rako deia egin du GuraSOsek

GuraSOs-ek iragarpena luzatu du otsailaren 23rako. “Apuntatu otsailak 23 zuen egutegian!”, adierazi du GuraSOsek sare sozialen bidez. Larunbat honetan, urtarri-

laren 26an emango dituzte iragarpen honi buruzko xehetasun gehiago. Gogoan izan, otsaila amaierarako manifestazioa iragarria dutela Donostian.



Xehetasunak larunbat honetan eskainiko dituzte.

“Agur Xabi, maitagarria izan haiz”

Ez du aurkezpen handirik behar. Nork ez zuen ezagutzen herrian, Xabier Iribar Amigorena. Koadrilak eta etxeoak jarri dizkioten eskeletan argi definitu zuten. “Agur Xabi. Maitagarria izan haiz”. Ilobek eskaini ziotenean, oso berea zuen deiadarrari keinua eginez, “gure bihotzak inoiz lehor ez daitezen, aua ya!”, hitzokin oroitu zuten osaba.

Iazko jaietan herriak omen du ostean iritsi da bere heriotzaren albistea. Usurbilgo 2018ko festetan, Xabi Iribarrek eta bere gaztaingile taldekoek, koadrilakoek izan zuten Santixabelak abiatzeko ohorea. Iribarrek berak piztu zuen Usurbil jai giroan lehortuko zuen suziria. Halako txupinazo baten beharrik ez zen izan ordea, Xabik girotu zuen herria oso berea zuen deiadar ezagun eta umorearekin, “beno usurbildarrok buila pixka bat aterako al dugu?... Goitik goitik Usurbil! Gora Santixabelak! Ondo pasa Santixabelak!” esanez. Txalo artean hartu zuen noski, herriak.



2018ko festetan, Xabi Iribarrek eta bere gaztaingile taldekoek izan zuten Santixabelak abiatzeko ohorea.

ESKUBALOIARI LOTUTA

“Aipatzekoa da urte luzez Xabi Iribarrek Usurbil Kirol Elkartearekin izan duen lotura, garai bateko senior mutilen taldeetako bat animatuz eta lagunduz, besteak beste”

Talde solidarioa

Xabi eta bere koadrila auzolanean ikusi ohi dugu sa-

rritan, herrian antolatu izan diren hamaika ekitaldietan. Haiek ditugu presoen sendeentzako nahiz beste hainbat elkartasun ekimenentzat gaztainak errez eta salduz, dirua biltzen aritu den talde solidarioa. Azkenekoz, plazan abenduaren 24ko Olentzeroren ikuskizunean parte hartu zuten. Besteak beste, NOAUA! Kultur Elkarteak antolaturiko San Tomas Azokan izan ohi ditugu urtero fin asko, goi-

zean goizetik lanean gogor. Urtarrilaren 18an kide maitatua galdu zuen lagun taldeak, eta baita herriak ere.

Aipatzekoa urte luzez, Iribarrek Usurbil Kirol Elkartearekin izan zuen lotura, garai bateko senior mutilen taldeetako bat animatuz eta lagunduz, besteak beste.

Adiorik ez Xabi! Besarkada handi bat senide eta lagunei. Astelehenean eman zitzaion azken agurra Iribarri.

Hurbilago: “Esker oneko deiadar bat egiten dugu zure omenez, Xabier”

Aurreko ostiralean zendu zen Xabier Iribar Amigorena eskertu eta omendu nahi izan du Hurbilagok, Usurbilgo ostalarien eta merkatarien elkarteak. NOAUA! aldizkarrira helarazitako mezuan aipatu dutenez, “herri ekimenean, elkartasun ekintzetan parte hartzen eta gure herria girotzen oroituko zaitugu beti. Esker oneko deiadar bat egiten dugu zure omenez, Xabier”.



“Herri ekimenean, elkartasun ekintzetan parte hartzen eta gure herria girotzen oroituko zaitugu beti”.

Aginagaren potentzialtasuna agerian, ETB-ren “Herri Txikin”

Tradizionalki, Aginagako angulei ere lotua egon den Donostia Eguneko ospakizunen azken uneak zuzenean eskaini aurretik, Aginaga bera izan zuen hizpide urtarrilaren 20ko gauean, Euskal Tebistan. Inguruotan zeresana eta ikusmina piztu duen “Herri Txiki, Infernu Handi” saioak barrutik erakutsi zituen, Aginaga eta aginagarrak. Arrakastatsua izan zen saioa, ikus-entzuleen %6,2ak bat egin zuen programarekin.

Azaroa eta abendua artean Zuhaitz Gurrutzagak, Mikel Pagadik eta aipatu telebista saioako lan taldeak bildutako irudi eta hitzak plazaratu zituzten. Tartean, abenduaren 14an Aginagako Elizan egini-ko grabazioa.

Oxkar Santamaria Aginagaren herritartasunari eta auzolanean berreskuraturiko Eliza Zaharreko kultur guneari buruz mintzatu zen Pagadirekin. Anguletara irten zen baita. Maria Angeles Arruti-ekin Aginagaren biztanleriari buruz bildu ohi dituen eta buruz dakizkien zenbakiekin jolasean aritu ziren. Korrika saioa egitetik bueltan harra-



Arrakastatsua izan zen saioa. Audientziari dagokionez, denboraldiko markarik onena urratu zuten Aginagari eskainitako programarekin. Argazkia: EITB.

AGINAGAREN ERAKUSGARRI

“Oxkar Santamaria Aginagaren herritartasunari eta auzolanean berreskuraturiko Eliza Zaharreko kultur guneari buruz mintzatu zen Mikel Pagadirekin”

patu zuen Benito Aranburu-ekin dutxa hotza hartu zuen Pagadik.

“Alferren hamaiketakoa”

Zuhaitz Gurrutzagak aldiz, Antton Pikabearekin bere etxean gosaldia zuen, Kontxi eta Julianekin “bixigarria” hartzen

izan zen, duela 40 urtetik astelehenero Sekañako “eozkoren mahaian” alferren hamaiketakoa dastatu zuen; angula preziatuak oraingoan. Maritxu Pagolaren lekukotza hunkigarria ere batu zuen eta Nieves eta Olatzek lanean jarri zuten Zuhaitz.

Umoretik joan zen saioan, Sebastian Lizasok Aginagako Elizako grabazioan botatako bertsoak ere entzun ahal izan ziren. Urtarrilaren 20ko “Herri Txiki, Infernu Handi” eitb. tv atarian ikus dezakezue osorik. “Esker mila bihotzez Aginagari”, luzatu ditu esker-erak sare sozialen bidez, Mikel Pagadik.

Eskola Txikien Festa antolatzen bilerak irekia deitu dute

Gipuzkoako Eskola Txikien 32. festa Aginagan egingo da ekainaren 9an. “Guretzat berezia da aurtengo hau. Lanean hasita gaude dagoeneko, talde ezberdinetan banatuta. Denon laguntza behar dugu”, San Praixku Guraso Elkartetik aditzera eman dute.

Otsailaren 2an larunbata, Aginagako ludotekan

Laguntza premian direlako, bilera deitu dute otsailaren 2rako: “arratsaldeko 18:00etan Aginagako ludotekan bilera informatibo irekia izango dugu. Animatu parte hartzera”.

“Oreina” Feroz Sarietan eta Ipar Euskal Herrian

2017ko udazkenean inguruetan grabatu zuten “Oreina”, Aginaga eta Usurbilgo irudiak hedatzen doaz munduan barrena. Aste hasieratik Ipar Euskal Herriko zine aretoetan ikusgai dago jada. Europa eta Hego Ameriketako hainbat jaialdietan aurkeztekoak dira gainera.

Bestalde, Sari Bereziaren atalean izendatua egon arren, “Oreina” ez zen aukeratu izan azkenean, Espainiako zine informatzaileen elkarteak urtarrilaren 19an Bilbon banatu zituen Feroz Sarietan. Sari Berezia “Entre dos aguas” filmari eman zioten. Halere, film honetako ordezkariak, Koldo Almandoz eta bere lan taldearen proiektuarekin partekatu zuten oroigarria.



Azaroa eta abendua artean Zuhaitz Gurrutzagak, Mikel Pagadik eta aipatu telebista saioako lan taldeak bildutako irudi eta hitzak plazaratu zituzten. Argazkiak: EITB.

SAGARRONDOTIK SAGARDORA

2019KO IKASTARO PRAKTIKOA USURBILEN

Otsailak 16:

SAGASTIEN NEGUKO KIMAKETA ETA ONGARRIKETA.

Aitor Etxeandia

Kimaketa
praktikak
bertako
sagastietan
egingo dira!

Martxoak 2:

FRUITU ARBOLEN UDABERRIKO EDO ZOTZEKO TXERTAKETA.

Josu Osa

Martxoak 23:

SAGASTIEN NEGUKO KIMAKETA, GAIXOTASUNAK ETA
TRATAMENDUAK. Aitor Etxeandia

Apirilak 6:

GARBITASUNA SAGARDOAREN KALITATEAREN LAGUN.
SAGARDOA EGURREZKO ONTZIETAN. SAGARDOAREN HISTORIA
BAT, ZER IKASTEKO?. Egoitz Zapiain eta Jakoba Errekondo

Maiatzak 18:

ILARGIA ETA EGUTEGI BIODINAMIKOA

Xabier Akizu

Ekainak 1:

SAGASTIEN UDAKO KIMAKETA, GAITZAK ETA IZURRITEAK.

Aitor Etxeandia

Uztailak 13:

FRUITU ARBOLEN UDAKO EDO BEGIKO TXERTAKETA.

Josu Osa

Irailak 7:

SAGARRAREN HELDUTASUN ANALISIAK. ETXEAN SAGARDOA
EGITEKO HASTAPENAK. Aitor Etxeandia eta Egoitz Zapiain

IKASTAROEN ORDUTEGIA: 9.00etatik 13.00tara

LEKUA: Potxoenea Kultur Etxea (Usurbil)

Ikastaro osoaren prezioa: 96€ (Alkartasuna Kooperatibako bazkideek DOAN)
Egun solteetan izena ematea ere badago; jarri Alkartasuna
Kooperatibarekin harremanetan.

IZEN EMATEA: 943 36 11 14 alkartasuna@usurbil.com edo
On line: <https://www.alkartasuna.eus/euskara/produktuak/ikastaroak>



Belaunaldiarteko etxebizitza komunitarioa izango du Ugartondoko urbanizazio berriak

Urruntzen gaituenak baino askoz gehiagok lotzen gaitu. Hurbildu, partekatu, elkarbizi eta elkarrengandik ikasteko asko dugu, eta bide horretan, mugari garrantzitsua izango da Usurbilgo Udalak urtarrilaren 18an Potxoenean aurkeztu zuen egitasmoa; Txirikorda izeneko belaunaldi arteko etxebizitza komunitarioa.

Proiektu aitzindaria Euskal Herrian, gazteak eta adinekoak bildu, haien beharrei erantzun eta modu kolektiboan ahaldu nahi dituen. Ugartondon laster batean eraikitzen hasiko den urbanizazio berriaren kokatuko da, Usurbilgo Udalak eremu honetan eskuraturiko ekipamendu publikoan.

“Gure artean urteetan ibili gara pentsatzen zer egin zitekeen ekipamenduetan”, zioen Xabier Arregi alkateak aipatu agerraldian. Hain zuzen, ekipamendu hau zertarako erabili erabakitzeko beharren azterketa bat egin du Udalak. “Ikusi da, badirela gutxienez bi behar oso garrantzitsu ekipamendu horrek asetu edo erantzun egoki bat eman dezakeena”, zioen Arregik.

Gazteen zailtasunak

Batetik, gazteen emantzipazioa. “Arrazoi desberdinak tar-



‘Txirikorda’ proiektu aitzindaria izango da Euskal Herrian; gazteak eta adinekoak bildu, haien beharrei erantzun eta bi belaunaldiak modu kolektiboan ahaldu nahi dituen.

TXIRIKORDA EGITASMOA

“Nahi bai baina emantzipatu ezinean dabilzan gazteei eta konpainia faltan egon edo etxean bizitzeko erosotasun faltan diren adinduei zuzendua dago”

teko, gazteek benetako zailtasunak dituzte gurasoen etxetik atera eta beren bizimodu burujabeari ekiteko”, alkatearen esanetan.

Adinekoen beharrak

Adinekoen hainbat beharrei ere aurre egin diezaike proiektuak, “konpainia faltagatik, etxera iritsi edo etxean mugitzeko deseroso sentitzen direlako, etxea handi geratu zaialako edo herrigunetik kanpo bizi direlako”. Udalak ondorioztatu duenez, adinekoen kolektiboan “ere bada gabezia bat eta iruditzen zaigu edadeko jendeak behar primario bat duela, konpainia, elkarbizitzaren beharra”.

Behar hauei modu batera-

tuan erantzuteko proposamen komunitarioa da, iragan astean jendaurrean aurkeztu zuten Txirikorda proiektua. Nahi bai baina emantzipatu ezinean dabilzan gazteei eta konpainia faltan egon edo etxean bizitzeko erosotasun faltan diren adinduei zuzendua. “Bi kolektibo hauek elkarbatuz, elkarrekin jarritz, eskutik helduta jarri eta hau ateratzen zaigu”. Hor- tik egitasmoaren izaera bera egoki definitzen duen proiektuari jarritako izena; Txirikorda.

Zaintza eta elkarbizitza

Hortxe beraz proiektu honen indargune nagusia; bi kolektibo, bi belaunaldion bateratzea, iragan asteko talde argazkiak islatu zuen moduan. Bi belaunaldion bizikidetzaren sustatu eta bi

kolektiboan arteko hartue- manak indartu nahi izatearen borondatearen adierazgarri, proiektuak hartu duen izena; Txirikorda.

Gazteen emantzipazioa erraztu, zahartzaroari modu

kolektiboan aurre egin, gazteak eta adinekoak subjektu aktibo bilakatu, haien autonomiaren lanketa bultzatu edota elkarren arteko zaintza sustatuko du Txirikordak. “Helburua elkar- gune bizi bat sortzea da, non

elkartasunaren, zaintzaren eta elkarbizitzaren balioak indartuko diren eta adin desberdinetako jendeak bertan gune erakargarri bat topa- tuko duen”, nabarmentzen zuen Arregik.

“Egitasmoak interes handia piztu du”

Egitasmoak oraindik argituzeko alderdi asko ditu. Hamaika galdera eta erantzun gutxi. Horiek guztiak zehazteko, proiektua edukiz osatu eta forma emateko prozesu parte hartzailea bideratuko dutela iragarri zuten.

Proiektuaren izaera bera du egitasmoak jorratuko duen bideak ere; izaera kolektiboa. Txirikordaren nondik norakoak, hurrengo hilabeteotan garatuko den prozesu parte hartzailean definituko dira honenbestez. “Iruditzen zaigu oso garrantzitsua dela, gaurtik hasita, gazte eta adinduak elkarlanean jartzea. Kontua ez da proiektu egina aurkeztea, baizik eta gerora horko bizikide izango direnek elkarrekin proiektu horren definizioa lantzea. Eta bideak garrantzia du. Bidean, kolektibo horiek ahaldunduko dira eta erabakiko dute zer eta nola nahi duten bizi elkarrekin”, Usurbilgo alkatearen esanetan.

Bereziki, gazte eta adinduek, hau da egitasmo honen erabil-tzaile potentzialak izango dute Txirikordak jorratuko duen bidea definitzeko erantzukizuna. Hiritik At kooperatibak dinamizatuko du prozesua. Guztira bost larunbat goizetan, 10:30-12:30 artean Potxoenean egingo diren saioetan bideratuko da lanketa hau guztia.

Parte hartzera deitzen dituzte, bereziki egitasmo honen erabil-tzaile potentzialak. “Animatzen zaituztegu prozesu honetan parte hartzera eta ia guztion artean etxebizitza komunitario polit bat sortu ahal dugun”, zioen prozesu parte hartzailea dinamizatuko duen Hiritik At Kooperatibako kide Ainhoa Retegik.

Usurbil, berriz ere aitzindari

Proiektu hau martxan jarrita, eremu honetan ere Usurbil



Hiritik At kooperatibak gidatuko du parte hartze prozesua.

TXIRIKORDA EGITASMOA

“Hiritik At kooperatibak dinamizatuko du prozesua. Guztira bost larunbat goizetan, 10:30-12:30 artean Potxoenean egingo diren saioetan bideratuko da lanketa hau guztia”

aitzindaria izango dugu. Txirikordaren eredu berritzailea Europan errotua dago aspalditik, “ondo funtzionatzen duten esperientziak dira gainera”. Euskal Herrian oraindik ez dugu halakorik. Oreretan antzeko esperientzia bat martxan jartzekotan dira, gazteekin soilik orde. “Adinekoentzako badira halako ereduak sustatzen dituen kooperatiba antzeko batzuk”, Retegiren esanetan.

Belaunaldiarteko egitasmo hau sustatzen lehena izango da Usurbil Europako alde honetan. “Gaur egun, Euskal Herrian belaunaldi arteko, hau da gazteak eta adineko pertsonak elkartzen dituen etxebizitza komunitario proiekturik ez dago. Usurbil berritzailea izango da hori sustatzen”, Hiritik At Kooperatibako ordezkariak nabarmendu zenez.

Aurreikuspenak bete eta emaitza egokiak izaten baditu, “aukera bat irekitzen da hemen, etorkizunari begira”. Horregatik azpimarratzen zuen alkateak, “oso garrantzitsua da, lehenen-

go esperientzia hau aberasgarria izatea, denok ikastea. Horrek etorkizunean beste eredu alternatibo batzuk martxan jartzeko aukera emango digu”.

Abiapuntuarekiko baikorra da Udala. Aurreko asteko agerraldiaren aurretik, proiektua gazte eta adinduen kolektiboekin partekatzerakoan, “segituan antzeman dugu harrera eta interes handia piztu duela. Hori baino abiapuntu hobirik ez da”.

Proiektuaren ezaugarri nagusiak

■ Gazteen emantzipazioa erraztuko du.

■ Zahartzaroaren dohainak gureganatu eta modu kolektiboan aurre egiteko aukera emango du.

■ Elkarren arteko zaintza sustatuko du.

■ Izaera komunitarioa landuko da, kolektibitatea josten lagunduko dute etxebizitzako espazio pribatu eta komunek eta belaunaldi arteko nahasketak. Gazteen babes eta konpainia izango dute adinduek. Adinduen ezagutza eta eskarmentua gazteek.

■ Proiektuaren diseinu eta garapena parte hartzean oinarrituko da.

■ Gazteak eta adinduak subjektu aktibo bilakatuko ditu.

■ Bizi-proiektu burujabeak garatzea ahalbidetuko du, gazte eta adinduen ahalduntzea.

Proiektuaren gakoak

■ Nori zuzendua: emantzipazio fasean egon eta etxebizitza alokatu edo erosi ezin duten gazteak. Dependentsia egoeran ez diren, autonomoak diren adinekoak.

■ Etxebizitzaren kokagunea: Ugartondon eraikiko diren etxebizitzaren eremuan, Udalak duen lursailean.

■ Etxebizitza kopurua: aurreikuspenen arabera, 16 bat.

■ Etxebizitzaren izaera: erabil-tzaileen beharretara egokituriko etxebizitzak pribatuak izango diren arren, eraikina publiko eta komunitarioa izango da, behar kolektiboek eta belaunaldi arteko elkarbizitza sustatuko duten espazio komunak izango ditu.

■ Etxebizitzaren jabetza: Usurbilgo Udalarena.

Parte hartze prozesuaren egutegia

■ Egunak: larunbat goizak.

■ Orduetgia: 10:30-12:30.

■ Tokia: Potxoenea.

■ Noiz zer gai landuko diren: -Urtarrilak 26: “Etxebizitzaren izaera orokorra”.

-Otsailak 2: “Erabil-tzaileak eta sarrera baldintzak”.

-Otsailak 16: “Espazioaren diseinua”.

-Martxoak 23: “Bizikidetza”.

-Apirilak 6: “Funtzionamendua”.

■ Egitasmoaren sustatzailea: Udala, herriko gazte eta adinduen kolektiboekin batera.

■ Parte hartze prozesuaren bideratzailea: Hiritik At! Kooperatiba.

Ugartondoko etxebizitzak eraikitzen hastear

Txirikorda proiektua aurkezteko agerraldian iragarri zuten, laster batean eraikitzen hastekoak dira Ugartondoko etxebizitzak. Gogoan izan, udaberri amaieraz geroztik urbanizazio hau garatuko den Ugarte baserriaren ingurua hutsik dela, eraikin berrientzako lekua libre dago honenbestez.

Danborrada goiztiarrenak

Danbor hotsak nagusi izan ziren urtarrilaren 18ko arratsaldean. Aurtent Donostia Eguna asteburuan egokitu denez, bi egunez aurreratu zen danborrada. Udarregi Ikastolako HH eta LH mailetako ikasleek emanaldi bateratua eskaini zuten Agerialdeko patioan. Zubietako Eskolako ikasleak eta irakasleak Zubietako frontoian aritu ziren. Aginagako ikasleak aldiz, eskola barruan. Argazki eta bideo irudi bidez jaso genituen hiru saioak.



Udarregi Ikastolako HH eta LH mailetako ikasleek emanaldi bateratua eskaini zuten Agerialdeko patioan.



Aginagako Eskolakoak, aterpean



Aginagako ikasleak eskola barruan jo zituzten Donostia Eguneako doinuak. Parez pare zituzten gurasoak eta senideak.

Zubietako ikasleak frontoian aritu ziren



Zubietako Eskolako ikasleak eta irakasleak Zubietako frontoian aritu ziren. Harmailetako berotasuna jaso zuten abesti bakoitzaren amaieran.

Usurbilgo maskaradarako girotzen hasteko, Pagolakoa ikusteko irteera

Urte hasieran iragarri bezala, Zuberoako maskaradaz gozatzeko aukera izango dugu ekainaren 16an, herritik mugitu gabe. Hego Euskal Herrian xiberotarrak eskainiko duten ikuskizun bakarra Usurbilen ikusi ahalko da. Maskaradak zer diren, hurbiletik ezagutu eta girotzen hasteko, Orbeldi Dantza Taldeak, maskaraden denboraldi betearen Xiberoara irteera antolatu du otsailaren 17an. Igande horretan Pagola herrian ospatuko dute apirilera arte iragarriak dituzten 16 emanaldietako bat.

Otsailak 17, igandea

- 8:30 Irteera Oiardo Kiroldegitik autobusez.
- 11:00 Pagolara (Zuberoa) iritsi eta goizeko barrikada ikusi.
- Eguerdian, bazkaria (janaria norberak eraman beharko du eta aterpea ziurtatua dugu. Kafea Orbeldiren kontu).
- 17:00ak aldera, maskaradaren arratsaldeko saioa.



Otsailaren 17an Zuberoara irteera antolatu du Orbeldi Dantza Taldeak. Argazkia: Aitor Irazusta.

- 19:00 Itzulerako autobusa.
- 21:30 Usurbilera iritsi.

Oharrak:

- Autobusaren prezioa: 10 euro.

Izen ematea, otsailaren 8ra arte:
orbeldi.udt@gmail.com helbidera idatzita edo ostegunetan, 19:00-21:00 artean Kiroldegiko

dantza gelan.

- Adin txikikoek arduradun batekin joan beharko dute.
- Antolatzailea: Orbeldi Dantza Taldea.

Inoizko arrakastatsuen, Xiberoko ikastolak laguntzeko elkartasun kanpaina

Xiberoko ikastolak laguntzeko Nafartarrak taldeak udazkenean zehar Usurbilen bideraturiko elkartasun kanpainak marka guztiak hautsi ditu.

Orohar, udalerrri honetatik kanpo aurreko edizioetan baino laguntza gutxiago bildu den arren, Usurbilen inoizko arrakasta handiena

izan du Xiberoko produktuen otarren salmenta kanpainak.

16.000 euro batu dira

Gogoan izan, bi saski mota zeuden aukeran; guztira 114 Ahuski eta 245 Irati otarre eskatu ziren Usurbilen. Guztira 16.000 euro inguru bildu ziren! Nafartarrak taldetik eskerrak luzatu dizkiete kanpaina honetan parte hartu duten guztiei.



Nafartarrak taldeak eskerrak luzatu dizkiete kanpainen parte hartu zutenei.

Bigarren urtebetetze eguna ere espetxean, Usurbildik 600 kilometrora

Exetik urrun, indarrean segitzen duen salbuespenezko espetxe politiken eraginez, urtarrilaren 19ko bigarren urtebetetze eguna ere espetxean bete behar izan zuen Xuak, Usurbildik ia 600 kilometrora, Valentziako Picassenteko kartzelan dituen Olatz Lasagabaster eta Patxi Uranga gurasoekin. Espetxe zigorraren hiru laurdenak beteak dituztenez, dagoeneko baldintzapean aske, kalean behar zuten hirurek, Usurbilen.

Bestelakoa da ordea erreallitatea. Aipatu moduan, Picassenten segitzen dute. Aldaketarik ez bada, urtebete barru, 2020ko urtarrilean, Xuak hiru urte betetzean Picassenteko espetxetik atera eta gurasoengandik urrunduko beharko du. Amona Mari Karmen Anzarekin bizitzera etorriko da, Mari Karmenek berak, adinekoak eta dispertsioa hizpide izan zituen abenduaren 20ko Sutegiko solasaldian iragarri zuenez. "Ardura baino poz askoz handiagoa izango da", zioen Mari Karmenek Sutegin.

Dispertsioak, presoan eta haien senide adindu zein gaixoen artean duen eragina aztertu zen ekitaldian. Anzak gai honek zer modutan eragiten dien azaldu zuen. Berak bisitatu ahal du egun biloba Xua, baina Olatzen eta Patxiren amonek ez. Ez daude Valentziako Picassenterako 1.200



Urtarrilaren 19ko bigarren urtebetetze eguna ere espetxean bete behar izan zuen Xuak, Usurbildik ia 600 kilometrora, Valentziako Picassenteko kartzelan dituen Olatz Lasagabaster eta Patxi Uranga gurasoekin batera.

DATORREN URTEAN

"Aldaketarik ez bada, urtebete barru, Xuak hiru urte betetzean Picassenteko espetxetik atera eta gurasoengandik urrunduko beharko du. Amona Mari Karmen Anzarekin bizitzera etorriko da, Mari Karmenek berak Sutegiko solasaldi batean iragarri zuenez"

kilometroko joan etorria egiteko osasun baldintza egokietan.

Dispertsioaren eragin latza

Dispertsioak gogor eragin du familia honetan. Duela urte-

bete gogorarazten genuenez, Xuaren lehen urtebetetzea oso berezia izan zen. Bazuten zer ospatua. Hasteko Xuaren urtebetetzea noski, baina baita onik zirela denak.

2017ko urtarrilean, beste hainbatetan egin zuen 600 kilometroko bidaia egin behar izan zuen Mari Karmenek jaio berri zen Xua biloba ezagutzeko. Hara iritsi ordea, ondoezik sentitu eta hilabetetik gora egin behar izan zuen Valentziako ospitaleko ZIU-n.

Xua jaio zen egunetan gainera, bere aitak, Patxi Urangak aitona galdu zuen. Hori gutxi ez eta, baimena eskatua izan arren, 21 egun itxaron behar izan zituen haurra ezagutu ahal izateko. Xua jaio aurretik, Patxi eta Olatz Alacanteko espetxean ziren. Haurdunaldiaren azken txanpan ordea, Olatz Valentziako Picassent

espetxera lekuz aldatu zuten. Haurra jaio ostean, hiru aste itxaron behar izan zuen Patxik, bera ere Picassentera lekuz aldatu eta haurra ezagutu ahal izateko.

Hasiera batean gainera ez zegoen ziurtasunik Patxi Urangak Picassenten jarraituko ote zuen edo ez. Azkenean bai, Xua, Olatz eta hirurak espetxe berean bildu zituzten, baina ez batera. Xua Olatzen ziega berean bizi da. Patxik ordea baimentzen diotenean soilik ikus dezake haurra.

Elkarretaratze berezia ostiralean

Denbora honetan guztian zehar, hamaika ekimen egin dira herrian, dispertsioa amaitzea exijitu eta Olatz, Patxi eta Xuaren etxeratzea eskatzeko. Iaz egin bezala, aurten ere ez da oharkabean igaroko Xuaren urtebetetzea. Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak hilero azken ostiraletan deitu ohi duen urtarrileko elkarretaratze berezia izango da oraingoan. "Zerbait berezia egingo dugu (iazkoaren antzera), halako ospakizuntxo bat zoriontzeko, elkartasuna adierazteko, eta lege arrunta aplikatuz, bere gurasoekin Usurbilen, etxean, beharko lukeela adierazteko", Usurbilen Nahi Ditugu bilgunetik NOAUA!ri adierazi diotenez.

txirriStra
TABERNA

- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Okindegia-Gozotegia

LABE-GOXO

Patxi

Patxi
Iateketa

· bazkariak EGUNERO
· afariak, asteazkenetik larunbatera

© 943 362725 · © 688 690 361

Txinparta biziko 11,78 milioi litro sagardo dastagarri

Historikotzat jo duten iazko ekoizpenaren ostean, sagardo gutxiago baina kalitate altukoa ekoitzi da. 234 sagardogileren baino gehiagoren 2,3 milioi bat kilo sagarrekin, 11,78 milioi litro sagardo ekoitzi dira aurtengoan Euskal Herrian, haietatik 1,5 milioi litro bertako sagarrarekin ekoiztuak, Euskal Sagardoa Jatorri Izendapenekoak alegia.

Sagardo gutxiago bai, baina izaera handiagokoak dastatuko ditugu, aipatu jatorri izendapeneko gerente Unai Agirreren arabera. “Kolore gehixeagoko produktua izango dugu aurten, gorputz gehiago nabarituko dugu ahoan eta alkohol gradu azido gehixeago izango du”.

Begi bistarako, “txinparta biziko eta lasto koloreko sagardoak”, usaimenerako “sakontasun aromatiko handia, fruta-usainekin” eta dastamenerako, “gorputz handiko eta sendotasun nahiz freskotasunaren oreka egokiko sagardoak” izango omen ditugu.

Antza, iaz bezain “aurreratua etorri da uztia. Loraldia beranduago izan zenez, azpimarratzekoa da heldutasunaren aurreratzea”.

Xehetasunok joan den astean eman zituzten ezagutzera Astigarragako Sagardoetxean, Sagardoaren Lurraldeak antolatuta, 26. Sagardo Berriaren Eguneko ospakizunen baitan, sektore honetako eragile ezberdinetako ordezkariak egin zuten agerraldian. Astigarragan sortutako Olatz Arrieta ETB-ko kazetari gonbidatu zuten txotx boladaren hasiera ekitaldira.

“Bertako sagarraren alde eginiko apustua finkatzen ari da”

Sagardo gutxiago ekoitzi arren, “bertako sagarrarekin eginiko apustua ondo funtzionatzen ari da”, azpimarratu zuen Eusko Jaurlaritzako nekazaritza,



Datuak erakusten dutenez, “bertako sagarraren alde eginiko apustua finkatzen ari da”.

UNAI AGIRRE

“Kolore gehixeagoko produktua izango dugu aurten, gorputz gehiago nabarituko dugu ahoan eta alkohol gradu azido gehixeago izango du”

arrantza, eta elikagai politiketako sailburuorde Bittor

Orozek. Horren adibide gisa jarri zituen ondoko datuok. Euskal Sagardoa Jatorri Izendapenaren baitako sagardotegi kopurua 48tik 50era igo da azken urtean; 234 ekoizle daude, iaz baino 19 gehiago; eta 486 hektarea, iaz baino 15 gehiago.

Goranzko datuok erakusten dutenez, “bertako sagarraren alde eginiko apustua finkatzen ari da”. Pixkanaka, etorkizunerako sagardoa %100ean

bertako sagarrarekin ekoizteko jarria dagoen erronka betetzetik gertuago gara. Baina zeregina bada oraindik; “sagardoak prestigioa behar du, prezio handiagoa eta kalitatezko kontsumoa”. Kontsumitzaileei bertako produktuen aldeko apustua egitea eskatu zien. Horretarako, sektore honetan inplikatuak dauden eragile guztien arteko elkarlaren garrantzia azpimarratu zuen.

Sektoreari eskertza

100 urte lankidetzan ari den sektorea eskertu nahi izan zuen Ainhoa Aizpuru Gipuzkoako Foru Aldundiko ekonomia sustapeneko, landa ingurune eta lurralde orekako diputatuak. Eskerrak helarazi nahi izan zizkion sektoreari, “kalitatezko produktua bultzatzen lan handia egiten dutelako eta lurraldearekiko konpromiso handia azaltzen dutelako”. Aipatu duenez, “bi

lerro hauetan bidelagun izango gaituzue”.

Bertako sagarrondoak sustatzeko legegaldi hasieran abiatutako proiektuaren emaitzak aurkeztu zituen. “85 hektarea berri landatzea ekarri du. Ia milioi bat euro bideratu dugu sagarrondo horiek landatu eta bertan makinaria aproposa erabiltzera”. Sagardoaren %100a bertako sagarrarekin ekoizteko orain-



100 urte lankidetzan ari den sektorea eskertu nahi izan zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak.

dik bidea jorratzeke badela gogorarazi zuen.

Erakargarritasun handikoa bisitan datozenentzat

Geroz eta bisitari gehiago datoz gure artera sagardoaren kulturak erakarrita. Txotx garaian %20, eta udan %67ra igotzen da bisitari kopurua, “hortik ia %80 Euskadi kanpotik datozen bisitariak”, Basquetourreko zuzendari Harkaitz Millanek Sagardoetxean azaldu zuenez.

Sagardotegietako esperientziok bizitzera datozen bisitarien etorrerak tokiko gizarte eta ekonomiarentzako aukera ederra suposatzen duela nabarmendu zuen.

Sagardoak turismoaren estrategian duen funtzioaren garrantzia goraipatu zuen Denis Itxaso, Gipuzkoako Foru Aldundiko turismo, gazteria eta kiroltako diputatuak. Donostiak erakarrirako turismoa Gipuzkoan barneratzeko Foru Aldundiak duen estrategian “sagardoak asko laguntzen gaitu”, gaineratu zuen.

Ostalaritzan presentzia irabazten

Eskuartearen dituzten egitasmoen erreposoa egin zuen Euskal Sagardoa Jatorri Izendapeneko gerente Unai Agirrek. Batetik, jatorri izendapen hau, sagar gorridun marka eskuratzeko egiten duten lan prozesua azaldu zuen. Ostalaritza mundura begirako lehen proiektuak bideratu di-



Olats Arrieta ETB-ko kazetari gonbidatu zuten txotx boladaren hasiera ekitaldira.

UNAI AGIRRE

“Zuzeneko salmentan eta esportazioan bidea egiten hasi nahi genuke”

tuzte, eta aurten bide horretan sakontzeko asmoa dute, “euskal sagardoak presentzia handiagoa izan dezan”. Hornez gain, “zuzeneko salmentan eta esportazioan bidea egiten hasi nahi genuke”.

Nazioartean saretzen

Sagardoaren Lurraldea ete-

nik gabeko mugimenduan dabilela nabarmendu zuen baita bertako sagardogileen ordezkari Joxe Anjel Goñik. Produktu eskaintza berritzen batetik; sagardo ekologikoa, sagar zukua, apardun sagardoa... aipatu zituen.

Horrekin batera, duela bi urte Sagardo Foruma eta hortik joan den irailean topaketa batzuk antolatu zituzten. Europako herrialde ezberdinetatik etorritako 15 ordezkari “Ciderlands” sarea osatu dute, “sagardoari lotutako turismo eta kultur eskaintza ezagutarazteko”.

Aginaga Sagardotegiaren 27. urtemuga jaia

Jai egun berezia antolatu du Aginaga Sagardotegiak otsailaren 1erako. “27 urte egingo ditugu gure etxea ireki genuela! Hori ospatzeko jaitxo bat antolatu dugu. Zatozte!” luzatu dute gonbita. Ane Azkonobieta eta Mikel Alkorta trikitilariak girotuko duten gaualdia antolatu dute, 22,50 euroko sagardotegiko menuaren bueltan. Informazio gehiago: 943 36 67 10.

Bertso-afari eta kontzertu gaua Aginagan

Deialdi mordo asteotan Aginagan. Horien artean bi gaualdi hurrengo bi larunbatetarako, bertso-afaria eta kontzertua:

Otsailak 2, larunbata

■ 20:00 Trikipotea Arrate tabernatik.

■ 21:00 Bertso-afaria Atarialde Elkartearen, Andoni Egaña, Markel Eizagirre eta Sebastian Lizaso bertsolariarekin. Menua: perretxiko ezberdinen nahaskia, bakailaoa saltsan, txuleta “pitillo” piperrekin, etxeko tarta izozkiarekin.

■ Sarrerak: Aginagako Arrate tabernan salgai 30 eurotan. Oharra: sarrera kopuru mugatua (90 laguntentzat).

■ Ondoren, erromeria: Ostolaza eta Lutxurdio.

■ Antolatzaileak: Antxomalantxa Herri Elkarte eta Eliza Zaharra.

Otsailak 9, larunbata

■ 23:30 Kontzertu gaua Aginagako Eliza Zaharrean: Erasoko, Kokein eta Dj Bull goizalderarte arte. Sarrerak: 8 eurotan Aginagako Arrate eta Usurbilgo Aitzaga tabernetan.

■ Antolatzailea: Aginagako Eliza Zaharra herri elkargunea.

KalexarROCK, Jontxuren omenez

5 urte bete ziren urtarrila hasieran Jon Uribe "Jontxu" gure artistik joan zenetik, baina herria ez da Jontxutaz ahaztu. Ezta gutxiagorik ere. Aurkezpen handirik behar ez duen gaztea oroitzeko Kalezarko Jai Batzordeak egunpasa antolatu du otsailaren 2an. Herri kirolak goizez, bazkaria eguerdian Saizar Sagardotegian, eta kontzertuak Haraneko aparkalekuan. Hitzordura gonbidatuko dituzten talde zehatzen berri aurrerago jakinaraziko dutela berri eman dute antolatzaileek, sare sozialen bidez zabaldu duten ondoko mezuan.

"Kaixo lagunok! Jon Uribe (Jontxu) laguna joan zela 5 urte pasa diren honetan, omenezko jaieguna antolatu dugu kalexartarrok! Bordatxo eta Aitzaga tabernetan eskuragarri izango dituzue bazkarirako



Egunpasa antolatu dute otsailaren 2rako Haraneko aparkalekuan.

txartelak. Kontzertuen berri aurrerago jakinaraziko dizuegu! Animatu, ziur egun ederra pasako dugula".

Haraneko aparkalekuan

Ekitaldi guztiak Harane futbol zelaiko aparkalekuan ospatuko dira. "Kontuan izanda egunean bertan jendea egongo dela, Kalexarko Jai Batzordetik bertaratzeko asmoa dutenei kotxea ahal den neurrian ez erabiltzeko eskatu nahi dugu".

KalexarROCK Jontxurekin!

Otsailak 2, larunbata

■ 12:30 Inaxio Perurena harrijasotzailea eta aizkolarien emanaldia.

■ 14:00 Bertso-bazkaria Saizar Sagardotegian. Bertsolariak: Beñat Gaztelumendi, Eli Pagola. Oharra: bazkarirako txartelak Bordatxon eta Aitzagan salgai.

■ 19:00 Kontzertuak Haraneko aparkalekuan.

■ Antolatzailea: Kalezarko Jai Batzordea.

EH-ko mus txapelketako kanporaketak

Abian da hain zuzen, Euskal Herriko 11. Mus Txapelketa. Inguruotan bi saio iragarri dira asteotarako:

Urtarrilak 25, ostirala

22:00 Aginagako sailkatze saioa, Atrialde Elkartean.

Otsailak 1, ostirala

22:00 Usurbilgo sailkatze saioa Aitzaga Elkartean.

Oharrak:

■ Izen emateak, saioen egun eta lekuan bertan, 21:30-22:00 artean.

■ Prezioa: bikoteko 20 euro.

Informazio gehiago:

ehmus.eus

Antolatzailea:

EH-ko Mus Federazioa.

BAZKIDEEN TXOKOA



noaua! euskararen aterpe

NOAUA!ko bazkideen artean bi sarrera zozketatuko ditugu urtarrilaren 24an

Erraustegiaren inguruko auzibideak zabalik daude

Hondakinen kudeaketa-ekin dugun gatazka-ren testuinguruan, Zubietan eraikitzen ari diren erraustegiaren harira martxan diren auzibideak agortuak daudela dioten Foru Aldundiaren adierazpenak gezurtatu ditu GuraSOSeK ohar bidez. Oraindik orain zabalik segitzen dutela gogorarazi dute. Horren adibide gisa aipatu dute, berriki EAE-ko Justizia Auzitegi Nagusiak GuraSOSeK aurkeztua zuen helegitea artxibatzea eskatzeko Foru Aldundiak eginitako eskaera alboratu izana.

Auzitegiak ebatzitakoaren arabera, ingurumen baimen bateratuari “GuraSOSeK helegitea aurkezteko legitimazioa du”, bere interes legitimoak kaltetuak direla argudiatuta. Ondorioz, “interes falta argudiatuz, Foru Aldundiak auzibide hau artxibatua izateko zuen asmoa bertan behera geratu da”.

Ondorioz, auzitegia GuraSOSeK Ingurumen Baimen Bateratua nulu deklaratu izateko aurkezturiko demandaren aurrean adierazi beharko da, baita CSIC-eko bi zientzialariek eginitako proba perizialaren aurrean ere. GuraSOSeK gogorarazi duenez, proba horretan



“Apuntatu otsailak 23 zuen egutegian!”, adierazi du GuraSOSeK sare sozialen bidez. Xehetasun gehiago larunbat honetan eskainiko dituzte.

AURREKARIAK

“Europako Batzordeak GuraSOSeK eginitako ikerketa eskaera tramitera onartu zuen iazko ekainean”

adierazten denez, “erraustegia martxan jarriko balitz, minbizia eta mutagenoak eragin edo giza ugalketa kaltetzen duten 12 substantzia kontrolik eta mugarik gabe isuriko lituzke”.

Europako bidea jorratzen

Europak ere jarrera bera agertu du, ez ditu zabalik dauden eskabideak itxi, GuraSOSeK ohartarazi duenez. Europako Batzordeak erraustegiaren proiektuaren aspektu ezberdi-

nei lotutako erakunde honen adierazpenaren eskaera tramitera onartu duela ohartarazi du guraso taldeak. Gogoan izan bestalde, Europako Batzordeak GuraSOSeK eginitako ikerketa eskaera tramitera onartu zuen iazko ekainean.

Orain, Europako Parlamentuak gai honi buruz mintzatze-ko GuraSOSeK eskaera onartu du. Aipatu erakundeak dioenez, GuraSOSeK eginitako eskaera tramitera onartu izateko baldintzak betetzen ditu eta Europako Batzordeari arazo honi buruzko alderdi ezberdinen gaineko aurreikerketa bat egitea eskatzen dio. Eskaera honen berri jakinaraziko zaie baita, Ingurumen, Osasun Publiko eta Elikagai Segurtasunerako Europako Batzordeei ere.

Minbizi eta sortzetiko malformazio kasuak gorantz, erraustegien bueltan

Osasuna eta Errausketa Ikerketa Taldeak hondakinen errausketak gure osasunean izan dezakeen eraginari buruz, mundu mailan argitara emandako ikerketen datuak plazaratzen segitzen du sare sozialen bidez. Iragan aste-koan, “Porta D, 2009 Systematic

review of epidemiological studies on health effects associated with management of solid waste” ikerketako datuak zekartzan. Datu kezagarriak, beste behin. “Kutsadura-iturri ezberdinek duten eraginari buruzko berrikuspen sistematikoa da. Honda-

kinen errausketari dagokionez, txostenak dio, 3 kilometroko esposizio-erradio batean minbizien kasuak orotara %3 gehitzen direla eta 10 kilometroko erradio batean, sortzetiko malformazioen kasuak %6-220 gehitzen direla”.

Birziklatuz, solidario

Boligrafo eta errotulagailuak birziklatzeko deialdia egin dute Usurbilgo Lanbide Eskolatik. Keinu txiki hau eginez, “Dravet sindromea sendatzen lagundu dezakezu”. Gaixotasun sendaezina honentzat tratamendu eraginkorra bilatzeko ikerketetara bideratuko dute jasotako laguntza. Material hau biltzeko kutxak jarri ditu ikastetxeak.

Informazio gehiago:

lhusurbil.eus

EHBilduren

zerrendaburuaren eta programaren aurkezpena

Hauteskunde giroan murgiltzear gara jada. Gogoan izan, maiatzaren 26an hitzordu hirukoitza izango dugu hautetsontziekin; udal eta foru hauteskundeak batetik. Eta baita Europako hauteskundeak ere. Zubietarren kasuan, Herri Batzarra berritzeko ere bozketa eguna izango dute maiatzeko azken igande horretan.

Hitzordura begira prestatzen hasiak dira eragile politikoak. Usurbilgo EHBilduk udal hauteskundeetarako hautatu duen zerrendaburu otsailaren 9an aurkeztuko du, Potxoenean deitu duen bilkuran. Horrekin batera, hurrengo legealdira begirako herri-programaren lehen zirriborroa aurkeztu eta lantzeko baliatuko dute deialdia. Aipatu moduan, Usurbilgo EHBilduren bilkura eta lan saioa, otsailaren 9an, 10:00-13:00 artean Potxoenean.

Usurbilgo EHBildutik ohartarazi dutenez, “hauteskunde prozesuan parte hartzeko izena eman behar da honako helbidean: elkarrekin.ehbildu.eus/register

Nafarroako erriberan Korrika aritzeko deia

Apirilaren 4tik 14ra ospatuko den 21. Korrikaren bide zati batzuetan, goizaldean hainbat txokotan lekukoa eramateko ez da aparteko jendetza biltzen. Nafarroako erriberan kasu. Errealitate hau iraultzeko deialdi berezia egin dute Usurbilen sare sozialen bidez. Adi; "euskararen alde korrika egin eta Korrika laguntzea helburu duen zoro zoragarrien usurbildar taldea osatu nahi da". Noiz? Apirilaren 4tik 5erako goizalderako osatu nahi da taldetxo. Animatzen zaretenok, helbide honetara idatzi dezakezue: zorozoragarriak.usurbil@gmail.com

Korrika laguntzeko hamaika bide

Lekukoa eramateko kilometroak erosteko epea zabalik



Kilometroak erosteko epea zabalik duzue Etumeta AEK euskaltegian.

duzue, Etumeta AEK euskaltegian. Bertan baita, materiala erosteko aukera. Korrika Laguntzaile izan zaitezke 12 euro ordainduta. Trukean, txapa eta beherapenak eskuratu dituzue komertzio hain-

batetan. Korrika laguntzeko hamaika bide dituzue bistan denez. Ez ahaztu, Aginaga, Usurbil eta Zubietatik apirilaren 12an igaroko da 21. Korrika. Informazio gehiago: korrika.eus

Gure Pakeako Bazkideen bilkura nagusia

Bazkideen urteko bilkura nagusia deitu du Gure Pakea Elkarteak urtarrilaren 25erako (ostirala); 16:00etan lehen deialdia, bigarrena 16:30ean. Ohi bezala, 2018ko memoria eta 2019rako egitasmoak hartuko dituzte ahotan.

Otsailean ospatuko den Jubilatutako Astearen aurretik izango da bilera hau. Hitzaldi, bazkari, ibilaldi, kantu eta antzezlan saioekin hornituriko Jubilatutako Astea eta bazkideen arteko txapelketak iragarri ditu Gure Pakeak, otsailaren 4tik 13ra. Egitarau zehatza datorren astekean plazaratuko dugun arren, Kantu Taldearen Agate Deunaren bezperako saioarekin abiatuko dute Jubilatutako Astea otsailaren 4an 18:00etan. Hitzaldi bana programatu dute



Artzabalen batuko dira ostiral honetan.

Matia Fundazioarekin eta Osakidetzarekin. Ibilaldia eta bi bazkari Aginaga sagardotegian.

Eta tartean, "Halako batean, bagoaz Benidorrera!" Gure Pakeako kideen eskutik Sutegin ikusi ahalko dugun antzezlanaren estreinaldia otsailaren 8an. Apuntatu beharreko ekintzetan, izen ematea aurrez bideratu beharko da Gure Pakeak Artzabalen duen bulegoan.

Hondarribian, Getxon eta Bilbon banatu dute Tripontzia

Gure Esku Dago herri mugimendutik aditzera eman dutenez, "Getxon, Bilbon eta Hondarribian saldu dira Tripontziaren zenbaki sari-dunak". Eskerrak helarazi dizkiete ekimenean parte hartu duten guztiei. "Hurrengo urtean gehiago!", iragarri dute.

Zenbaki sarituak

- 60.000 euroko sari nagusia: 22.873 (Gipuzkoa).
 - 2.000 euro: 22.873 zenbakiaren gainerako serieak.
 - 1.500 euro: 21.013 zenbakiaren serie bakoitzeko.
 - 1.000 euro: 16.692 zenbakiaren serie bakoitzeko.
- Informazio gehiago: gureeskudago.eus together.eus

Zorione Mendezek erakusketa

Artzabalen

Aitzaga Elkarteak azaroaren lehenean antolaturiko Artzabalen Azokan postua jarri ostean, Zorione Mendezek bere sortze lanen bilduma bat ikusgai jarriko du Artzabal jatetxean hilabete eta erdiz, "Bi Txori Buru" erakusketaren baitan. Bere sortze lanok ikusi soilik ez, erosteko aukera izango duzue. "Hilabete eta erdiz, bolada honetan egin ditudan lan batzuk egongo dira ikusgai-salgai Artzabalen. Ilusio handiz jasoko dut zuen bisita!".

Inauteri Festa jostalarienerako proposamenak biltzeko garaia

Gaia aukeratuta, martxoaren 2an ospatuko dugun Inauteri Festarako egitaraua diseinatzeko lanetan murgilduak gabilta. Mozorro jaialdirako hitzordurik proposatu nahi baduzu deitu 943 360 321 telefono zenbakira edo emailez helarazi elkarteak@noaue.eus helbidera. Gustura asko aztertu, eta ahal bada, gauzatuko ditugu zuen ekarpenak.

Aginagako Arratek, telefono zenbaki berria laster

Aginagako Arrate jubilatuen elkarteke tabernatik NOAUA!ri ohartarazi diotenez, guneak telefono zenbakirik ez du gaur egun. Telefono zenbaki zaharrera deitzen baduzue honenbestez, deia ez diote erantzungo. Laster, telefono zenbaki berri bat izango du Arratek. Martxan jarri bezain laster jakinaraziko dute.

Ia 600 lagun, igandeko mendiko bizikleta probarako prest

Aldizkari hau inprentara bidean zihoala, ia 600 lagun zeuden izena emanda, igandean (urtarrilak 27), 9:00etan Mikel Laboa plazatik abiatu eta frontoian amaituko den Irisasi BTT Hotzak Akabatzen probarako. Oraindik zabalik segiko du inskripzioak bideratzeko epeak ostiral gauera arte, kirolprobak.com atarian. Proba egunean bertan ere izena eman ahalko da, igande goizeko 8:45ak arte. Prezioak: aurrez, federatuek 18 euro, federatu gabeek 20 euro. Proba egunean, 25 euro.

13-16 urte arteko gaztetxoek ere parte hartu ahalko dute hitzorduan, baina izen ema-

teko heldu baten laguntzaz, irisasibtt@gmail.com helbidera emaila bidali beharko dute. Hiru ibilbide izango dira aukeran: erraza (25 kilometro), ertaina (31 km) eta gogorra (40 km artekoa). Informazio gehiago: andatza.com/irisasibtt@gmail.com

Otsailerako bi mendi irteera

Dakizuenez, zuzendaritza talde berria osatu du Andatza Elkarteak. Mendizaleen bilguneak segida izango du honenbestez. Aurrera begira eskaintza indartu eta zabaldu asmotan dira. Otsailerako adibidez, bi irteera iragarri dituzte:

■ Otsailak 10, igandea: 8:00



Otsailaren 10ean Usurbil-Ernio-Alkiza ibilaldia osatuko dute.

Oiardo Kiroldegitik aterata, Usurbil-Ernio-Alkiza ibilaldia.

■ Otsailak 16, larunbata: 7:45 Oiardo Kiroldegitik abiatuta, Euskal Herriko mendiak eza gutzen; 1. mendia.

Informazio gehiago:
andatza.com

Garazi Artola bigarren izan zen Garingo Mendi Lasterketan

Sarah Ugarte eta Ander Lazkano izan ziren Garingo VII. Mendi Lasterketako garaileak. Emakumeen sailkapenean, bi usurbildar nabarmendu ziren. Garazi Artola bigarren iritsi zen helmugara eta Irati Larrañaga laugarren.

11 kilometroko ibilbide lokaztua eta aldapatsua osatu zuten antolatzaileek, eta guztira 189 korrikalarik hartu zuten parte.



Garazi Artola (ezkerretik hasita bigarrena) irabazleen podiumera igo zen Garinen. Argazkia: Josu Urrestarazu Garcia.

Futbol partidak

Haranen

Urtarrilak 26, larunbata

■ 11:00 Kadete mutilak:

Usurbil F.T.-Euskalduna

■ 16:00 Erregionalak:

Usurbil F.T.-Astigarraga Mundarro

Eskubaloi

partidak

kiroldegian

Urtarrilak 26, larunbata

Eskola Kirola

■ 09:30 Alebin mutilak:

Udarregi 5B-Udarregi 5A

Udarregi 6A-Urnieta 6B

■ 10:45 Infantil neskak:

Udarregi B-Irauli

Usurbil K. E.

■ 16:00 Kadete mutilak, Territoriala: Usurbil K.E.-Amenabar

Enrike Huizi,

txapeldunorde

Trinkete klubaren arteko Gipuzkoako Txapelketako eskuz banakako finalak jokatu ziren aurreko larunbatean, Irurako Ametsa frontoian. Enrike Huizi garaipenetik gertu izan zen. Hauxe azken emaitza:

Nagusiak, 2. maila:

Behar Zana (Esnaola) 40

Pagazpe (Enrike Huizi) 39



Enrike Huizi txapeldun-orde izan da trinkete txapelketan.



EGUNEKO MENUA KARTA
PLATER KONBINATUAK
OGITAR TEKOAK · TOSTAK
MENU BEREZIAK

ARTZABAL
BASERRIA · JATETXEA

943 36 91 39

www.artzabaljatetxea.eus

BORDATXO
taberna

Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

ZENDOIA
ENE taberna
Kale Nagusia 35, Usurbil



ETXEBIZITZA

Salgai

Etxebizitza egin daitekeen 61 metro karratuko lokala salgai Munalurran. Nahi izanez gero, lizentzia, proiektua eta etxebizitza egiteko aurrekontua eskuragarri. 943 916 182 (Jon)

San Inazio kalean 100 metro-tako etxebizitza salgai. Sukaldea jantokiarekin, 25 metroko saloia, 2 komun, 3 logela haundi eta bi balkoi ditu. Eguzkitsua eta ia estrentzear. 610 52 78 32

Etxea salgai, Zubiaurrenean. 70 m². 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoia trasteleku. Dena kanpora. Fatxada eta teilatua berrituta. 688 779 465.

Etxebizitza eta garajea salgai Etxe-aldian (San Esteban kalea). Biak batera edo aparte. 3 logela, sukalde-egongela eta bainugela. Etxebizitza 60m² eta garajeak 22m². 688866968

3 logela eta ganbarako etxebizitza salgai edo alokairuan Aginagan. Berritu berria, eguzkitsua eta lasaia. Tel. 650450869

Etxea erosi nahi dut Usurbilen. Kaxkotik gertu dagoen auzo batean. Gehienez 100.000 euro ordaintzeko prest. Tel. 666 770 851

Etxebizitza eta garajea salgai. Biak batera edo aparte. 3 logela, sukalde-egongela, 2 bainugela. Etxebizitza 78 m² eta garajeak 50m². Tel. 676 453 176.

90 m² pisua salgai Txaramunto kalean. 3 logela, sukaldea, 2 komun, egongela. 11 m²- terraza, 8 m² trasteleku eta bertan 33 m²-ko garajea erosteko aukera. 606 877 856

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berriak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

Pisu bat salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera. Ganbara prezio berruan. Prezioa: 205.000 euro. Tel. 629 631 838

Pisua eta garajea salgai kale nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela, komuna, kafetakia. Dena berrituta. Fatxada ere bai. Garajea 40 m² eta itxia. Biak batera edo aparte. Tel. 695 705 905.

Gure Borda salgai: 5.600 m², borda, aterpea 943 42 96 82 / 637 293 471

Kalezar auzoa, 3 gela handi, sukalde handia, komun bat. Gela guztiak kanpoaldera. Fatxada berrituta, teilatua egoera onean. Garajea, bi trasteleku. 135 m². 637 22 88 60.

Alokairuan

Marradun garaje bat alokairuan Bizkarre auzoan. Tel. 696 014 585

Erdialdean pisua alokatzen da, 2 gela, egongela, sukaldea, komuna eta trasteroa. Dena kanpoaldera. Hiru balkoi eta igogailua. Tlf: 670070562

Alokairuko pisu baten bila gabilta. Bi neska gara, biak lana-rekin, arduratsua eta garbiak. 688893668

Abendurako pisua alokairuan

hartu nahi dut, Aginagan, Usurbilen edo Orion. 690 367 952

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

Logela bat alokatuko nuke. Mutil langilea, serioa eta arduratsua. 651 197 381 / 632 138 393

Alokatzeko pisu merke baten bila gabilta, bikote bat gara, biak lanarekin, informea ditugu. 675595294

Duplex bat alokatzen da Txaramunto kalean. 3 logela, 2 komun, sukaldea, egongela, bulego bat, terraza bat eta garajea. 625 702 807.

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Arduratsua eta garbia. 612 487 017.

Negoio-letal bat alokatzen da. Kafetegia edo taberna gisara nahiago, baina aukerak zabalik. Kaxkoan kokatua. 630 456 404

3 geletako etxea alokairuan; 600 euro gehienez. 665319105.

Alokairuko pisu baten bila nabil. 3 logela eta igogailua. Familia arduratsua eta nominarekin. Epe luzerako. Tel. 687 201 410.

Logela alokairuan Aginagan, pertsona arduratsu batentzat.

Tel. 672 448 644.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Txakur bat dut. Errodatua. 661 115 222

Alokairuko pisu txiki baten bila nabil. Presa dauka. 699 680 265.

MOTORRA

Salmenta,

garajeak

Kale Nagusian garaje bat salgai. Ez da garaje itxita. Prezioa negoziatzeko. 667336405.

Atxegalden garaje bat erosi edo alokairuan hartuko nuke. 653014518

Garaje itxi bat alokatzen da Errekatzikalean. Tel. 616 235 366.

Alokairuan 50m²-ko lokal/garaje bat Atxegalden. Autoak sartzeko atarekin. Goiko kalea 2. 676453176

Baju bat alokatzen da Munalurra, 4ean. Tel. 652 765 583

Garajea salgai Txaramunto kalean. 23 m², ate elektriko eta itxia. 615744628.

34m²ko lokal komertzial bat alokatzen da Errekatzikalean. 695723192

2 garaje marra alokairuan edo salgai, Olarriondo 4an. Banaka edo biak batera. Tel. 663 031 803

120 metro² lokal bat salgai. Alpe-rroburu 3an. 699 306 158

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Udarregi Ikastola partikularrak emateko prest dagoen jendearen zerrenda eguneratzen ari da. Partikularrak emateko prest egongo bazina, bidali mezu bat:

gorputzaldiak@udarregi.eus

Kamarero eta sukaldari laguntzaile behar dira Aratz erretzejian. info@restaurantearatz.com

Aseguru sektorean espezializatua den gestore pertsonal baten bila gabilta. Heziketa aseguru-etxearen esku eta libre egotea eskatzen da. Diru-sarreraren altuak. jm.fandino@catalanaoccidente.com. 699 760 873.

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Emakume arduratsua naiz, eta lan egingo nuke, pertsona helduak zaintzen edo etxeko lanak egiten. Interna moduan. 663 488 438

Garbiketa lanetan edo pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke. Interna edo externa bezala. 617 064 054

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo lukeen neska bat naiz. Esperientziarekin. 663 443 736

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. Interna edo externa bezala. Tel. 619 355 819

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Interna edo externa bezala. Tel. 633 101 867

Emakume euskaldun bat eskaintzen da, etxeko lanak egiteko. Astean 2 egunez, goizez edo arratsalde. Urtariletik aurrera. 671 547 567

Neska arduratsua bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen, umeak zaintzen edo garbiketaren. 67127904

Mutil arduratsua bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen. Interno, externo edo gauak eritxean egiteko. Erreferentziak eta esperientziarekin. Tel. 603 595 656



Zorionak Antton!

6 urte bete dituzu muxu potolo bat etxekoan partez!

Heriotzak

Justo Zaldúa Sarasua

85 urterekin hil zen urtarrilaren 16an Usurbilen



Xabier Iribar Amigorena

60 urterekin hil zen urtarrilaren 18an Usurbilen



Eugenio Hernández González

84 urterekin hil zen urtarrilaren 18an Usurbilen



Juan Zubeldia Iribar

86 urterekin hil zen urtarrilaren 21ean Usurbilen



OHARRA: 2018ko otsailaren 1ean aterako dugu hurrengo astekaria. Oharrak, zorion-agurrak, bestelako deialdiak...

jakinarazteko azken eguna: urtarrilaren 28an astelehena, eguerdiko 11:00etan. Emailz helbide honetara igorri: erredakzioa@noaua.eus

Lan bila nabil. Helduak zaintzen. Interno, externo edo orduka. 631 996 636.

Lan bila nabil. Paperak egunean. Helduak zaintzen. Interna, externa edo orduka. 631 856 814.

Lan bila nabil. Interna bezala. Tel. 677 256 701.

Lan bila dibilen neska bat naiz. Arduratsua eta esperientziarekin. Etxeko lanak egiten, umeak edo nagusiak zaintzen. Orduka, interna edo externa bezala. Segituan lanean hasiko nintzake. 637 106 649.

Lan egin nahi dut. Interna edo externa bezala. Pertsona helduak zaintzen, supermerkatuan, tabernetan... Tel. 682 723 520

Pertsona helduak zainduko nituzke, asteburu, jai egunetan eta gauean, baita erietxean ere. 606 661 048 / 943 404015.

Jende heldua zaintzeko prest. Interna moduan edo orduka. Dokumentazio osoa dut. 682 72 35 20.

Neska euskalduna, Usurbilen umeak zaintzen egingo nuke lan udara honetan: ekaina, uztaila edota abuztuan (goiz, arratsalde edo orduka). 617263123.

Lan bila nabil. Garbiketan edo pertsona helduak zaintzen. Etxean, ospitalean, gauean, externa bezala, orduka edo asteburutan. 671763558

Lan bila nabil interna edo externa bezala. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. Urtebeteko esperientzia. Arduratsua, erreferentzia onekin. 666 295 450

Garbiketa egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko. Esperientzia duen neska, arduratsua. Berehala lanean hasiko nintzake. 637 106 649

Lan bila nabil, pertsona helduak zaintzeko. Ospitalean, etxean, gauean. Garbiketa orokorrean ere bai. 671 763 558

Lan bila nabil etxeak garbitzen edo umeak zaintzen, ekaina eta uztaila, goizetan eta Usurbilen. 608201745.

Pertsona helduak edo umeak

zaintzen lan egingo nuke. Interna, externa edo orduka. 632 541 872

Emakume bat naiz, eta lan bila nabil. Interna, externa, orduka. Helduak edo umeak zaintzen. 676 188 411

Neska bat naiz, eta lan bila nabil. Orduka lan egingo nuke. Helduak edo umeak zaintzen. 619 355 819

Mutil gazte bat naiz, eta lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen, hospitalean, baserrian. 632090146

Mutil gazte bat naiz, eta lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen, hospitalean, baserrian. 632793747

Lan bila nabil. Umeak edo pertsona helduak zaintzen. Esperientzia eta erreferentziak. 662 910 181

Emakume bat eskaintzen da

pertsona helduak zaintzeko. Geriatriako eta lehen laguntzako ezagutzak ditut. Esperientzia etxeko lanetan eta antolamenduan. Erreferentziak ditut. 612 495 429

Emakume bat eskaintzen da, etxeko lanak egiteko edo umeak zaintzeko. Goizez edo arratsalde. Esperientzia daukat. 690 336 444.

Lan bila nabil. Orduka eta arratsalde. 663 776 93

Lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen, gauean, asteburutan, externa bezala edo garbiketa lanean. 671 763 558.

Interna moduan lan egin nahi dut adinekoak zaintzen. 25 urteko lan esperientzia dut. 633 73 64 26

Lan bila nabil, etxeak garbitzen,

etxeko lanak egiten edo pertsona helduak zaintzen. Esperientzia ere erreferentziak. Tel. 632 576 258

Mutil arduratsua baserriko lanetarako eskaintzen da. 661118892.

18 urteko neska euskaldun herritar esperientziaduna naiz. Aste osoan zehar arratsalden umeak zainduko nituzke. 688817429.

Lan bila nabil. Umeak zaintzen, garbiketa lanak egiten, orduka, interna bezala. Tel. 642 238 949

Lan bila nabil. Etxeak garbitzen, arratsaldetan 2 ordu edo asteburutan. Tel. 663 776 223.

Usurbilgo bizilagun bat naiz, eta orduka garbiketarako egiten lan egingo nuke. Tel. 674 570 534

Lan bila nabil. Etxeak garbitzen, arratsaldetan 2 ordu edo asteburutan. 663 776 223. Maribel

BESTELAKOAK

Usurbilen bizi naiz eta Lehen Hezkuntzako oposaketak prestatzeko talde bat osatu nahiko nuke ahalik azkarren. Klase partikularrik jasoko nituzke 2017. urtean atera zuen batekin, orduko prezioa adostuz. Ima. 688681557

Diamante, madarines eta isabelito japonesezko arrazako txoritxoak salgai. 659 185 107

4 gurgildun karro elektrikoak salgai. Scooter markakoa. Egokia elbarrituentzat. Tel. 664 609 596

3 metroko tolo marroia eta ariketak egiteko trifasikoa salgai. Prezioa adosteko. 676 39 89 33

Ingleseko klaseak ematen ditut 3-4 urteko haurretatik hasita. Klase dibertigarri eta alaiak gaztetxoentzat eta azterketen prestakuntza nerabeentzat. CPE tituluduna. Natali 635909606

Oxelo markako patinete bat galdu dugu frontoi inguruan. Aurkitzen baduzu deitu: 615 760 826 telefonora. Iزارo

Marradun garaje bat alokairuan Bizkarre auzoan 696014585

Ingleseko eta frantseseko klaseak ematen ditut, etxetara joanda. Jokin. Tel. 600 766 068

14 bat urteko eta eskumuturraren tamainako dordoka galdu dut. Bilio sentimental handia du. Aurkitu baduzu: 663 065 460.

Udarregi Ikastolan klase partikularrik emateko jende bila gabiltza. Interesa baduzu pasa ikastolatik edo deitu! Telefono zenbakia: 943 36 12 16

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Asteleheneetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitzegia.....	943 372 336	Amenabar botika (lehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta...900 840 111 / 016	
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiarde Kiroldegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala.....	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkarte Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....		Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaua! Kultur Elkarte.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak

Osteguna 24 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Ostirala 25 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Larunbata 26 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Igandea 27 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Astelehena 28 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Asteartea 29 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Asteazkena 30 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Urtarrilak 24 - Otsailak 03

Osteguna 31 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loloia 9. Lasarte

Ostirala 01 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Larunbata 02 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Igandea 03 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
CASTILLA-LARBURU
URBIETA KALEA, 7 HERNANI
943552941

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.

Agenda urtarrila

25 ostirala

- Gure Pakeako bazkideen batzar nagusia. 16:30ean Artzabalen.
- "Xuak 2 urte" euskal presoen eskubideen aldeko elkarretaratze berezia. 20:00etan Mikel Laboa plazan.

26 larunbata

- Ate Irekien Eguna Udarregi Ikastolan 10:30ean Udarregi Ikastolaren eraikin berriko jangelan.
- Txirikorda proiektua definitzeko lehen parte hartze saioa. 10:30ean Potxoenean.
- Kantu jira 12:30ean Mikel Laboa plazatik.

27 igandea

- Irisasi BTT 2019 "Hotzak akabatzen" 9:00etan Mikel Laboa plazatik.
- Dantza filma. 19:00etan Sutegin. Aurrez salgai 6 eurotan NOAUA!n eta Lizardin. Bazkideek 4 eurotan, NOAUA!n bertan.

Larunbat eguerdian, kantu-jira

10 urte bete dituen Kantu Taldeak urtemuga berezi honetako lehen hitzordua iragarri du larunbaterako (urtarrilak 26). 2019ko lehen kantu-jira, oraingoan eguerdiz. 12:30ean abiaraziko dute Mikel Laboa plazatik, Udarregi Ikastolako musika irakasle Jaione Eskuderoen gidaritzapean.

Otsailaren 4an, kantu-bertso saio berezia
Otsailaren 4ko Agate Deunaren bezperarako ere kantu bertso saio berezia iragarri dute, 18:00etan abiatuko dena, Jubilatu Astearen abiapuntu ere izango den Artzabaletik. Ikastetxeetan ere saioak iragarri dituzte; 14:45ean kalejirekin hasi eta frontoian amaituko den Udarregi Ikastolakoen itzulua. Eguraldi ona bada, Aginagako Eskolakoak ere kantu eskean irtetekoak dira.

"Dantza" filma, igandean Sutegin ikusgai

Igande honetan 19:00etan hasita Sutegin, Telmo Esnalek zuzenduriko Dantza filma ikusteko aukera izango da. Sarreak 6 eurotan eskura ditzakezue aurrez NOAUA!-ren egoitzan eta Lizardi liburu dendan. 4 eurotan, NOAUA!n bakarrik.



Eguerdiko 12:30ean abiatuko dira Mikel Laboa plazatik.



Filmazioan Orbeldi Dantza Taldeko kideek hartu zuten parte.

Datozenak



Pentsio duinen aldeko elkarretaratzea

Urtarrilaren 31n osteguna, 19:00etatik aurrera Mikel Laboa plazan. Deitzai-leak: Usurbilgo Gure Pakea, Santueneako Gure Elkarte eta Aginagako Arrate jubilatuek.

Otsailaren 2an, bertso-afaria Aginagan

Otsailaren 2rako, bertso-afaria antolatu dute Antxomolantxa Herri Elkarteak eta Eliza Zaharrak Aginagan.

- 20:00 Trikipoteoa Arrate tabernatik.
- 21:00 Bertso-afaria Atari alde Elkartean, Andoni Egaña, Markel Eizagirre eta Sebastian Lizasorekin.
- Sarrerak: Aginagako Arrate tabernan salgai 30 eurotan.
- Oharra: sarrera kopuru mugatua (90 lagunentzat).
- Ondoren, erromeria: Ostolaza eta Lutxurdio.

Usurbil Autoak
MEKANIKA-KARROZERIA

SUSTITUZIO KOTKEA DOAN!!

ZUMARTEGI INDUSTRIALDEA

943 36 10 79

JUANTXO
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8

943 370 008

ETXETRESNEN

KONPONKETAK
eta **SALMENTA**

MARKA GUZTIAK azkar, prezio onean
20 URTEKO ESPERIENTZIA

645417665

XABIER Usurbil

AGINAGAKO Herri Eskola

Eskola bizirik, Agiña bizirik!



•2-12 urte bitartekoentzat euskarazko irakaskuntza eskaintza zabala doan: ingelesa 3 urtetik aurrera, musika, internet gela guztietan, heziketa bereziko irakasle espezializatuen zerbitzua...

•Jantoki zerbitzua, bertako ostatuan sukaldatua.

•Eskola-txikien artean koordinatutako proiektu konstruktibismoan oinarrituz.

•Eskola-txikien arteko elkarbizitza: irteerak, antzerkiak, kirola...

•Eskola orduz kanpoko kirola.

•Goizeko gela (8:00-9:30)

Izena emateko epea: **urtarrilaren 28tik**
otsailaren 8ra

9:30etik-16:30tara



Usurbilgo Udala

AGINAGA
HERRI ESKOLA
Usurbil

baikara
Gipuzkoako Ikasle
Gurasoen Federazioa

AGINAGAKO HERRI IKASTETXEA

Erriberako Kalea 7

20170 AGINAGA

Tel. 943 372044
Faxa: 943 372044

012261aa@hezkuntza.net

Udarregi

IKASTOLA

Udarregi ikastolak zera eskaintzen dizue:

- 0 urtetik 16 urte bitarteko irakaskuntza arautua. Konfiantzaren Pedagogia egitasmo pedagogikoa garatzen dugu 3-6 urteko haurren geletan.
- Heziketa euskalduna: euskaraz ikasi eta bizi, eta Euskal Herriko Kultura eta herri-ekintzetan murgildua dagoena.
- Balore eta jarreraren lanketa, heziketaren ardatz gisa.
- **KiVa Ikastola gara:** Eskola Jazarpenaren (bullying) aurkako programa finlandiarra indarrean dugu 2017ko urtarriletik aurrera beste 56 ikastolekin batera.
- Irakaskuntza Eleanitza: D eredu; ingelesa 4 urtetik aurrera; gaztelera Lehen Hezkuntzaren 2. mailatik aurrera eta frantsesa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan.
- Orientazio Departamendua: tutoretza eta banakako orientazioa. Orientazioa gurasoentzat.
- Hezkuntza Behar Bereziak dituztenentzat Laguntza Gela.
- Hizkuntzetarako irakasle espezialistak.
- Informazio eta Komunikazio-Teknologiak: Informatika, Internet eta Ikus-entzunezkoak.
- Garraioa auzo guztietara.
- Jangela: Bertan sukaldatutako menuak (adin guztietarako) eskaintzen ditugu, herriko eta inguruko ekoizleen elikagaiak zerbitzatzuz bazkaltiarrentzat. Honela, herriko ekoizleen produktuen kontsumoa sustatzearekin batera, elikadura arduratsu eta osasuntsuaren baloreak indartzen ditugu.
- Ikasleen Goizeko Zaintza: 08:00etatik 09:00etara.
- Eskolaz kanpoko jarduerak: kirolak, dantza, xake. ZIRIMARA proiektua.

51 urteko esperientzia Usurbilen.

Matrikulatzeko epea (3 urtetik-16 urtera)

Urtarrilaren 28tik otsailaren 8ra (biak barne)

HAUR HEZKUNTZA: 3 - 6

LEHEN HEZKUNTZA: 6 - 12

DBH: 12 - 16



943 361 216

Udarregi Ikastola

Gernika ibilbidea. USURBIL

www.udarregi.eus